



## Proiektuen plaza 2024 -Proiektu irekien deialdi jarraia-

*Proiektuen Plaza* Tabakalera Medialabeko proiektu-deialdi ireki eta jarraia da eta kultura digitalaren, diseinu irekiaren eta ezagutza partekatua arloko proposamenak jasotzen ditu. Proiektuen Plazak, Hirikilabs Plazaren lekukoa hartuko du. Deialdi horrek, elkartzeko eta proiektuak garatzeko gune bat eskaini zuen laborategian hamabi ediziotan zehar, inguruko pertsona, kolektibo eta praktika-komunitateen elkarlanean oinarrituta. Orain, deialdi berriari esker, proiektuak etengabe aurkeztu ahal izango dira urtean zehar.

Proiektu irekiak sortzeko *Proiektuen Plaza* deialdiaren bidez, herritarrei, elkartei, kolektiboari eta taldeei dei egiten zaie teknologiari eta/edo kultura digitalari buruzko proiektu kolektiboak egiteko proposamenak aurkez ditzaten.

Garatuko diren proiektuen artean, teknologia erabiltzeko esperimentazioa dago, prototipoak sortzeko, modu sortzailean adierazteko, euskarri berriak probatzeko, prozesuak aldatzeko edo sinplifikatzeko, eskuragarri bihurtzeko edo teknologia eguneroko testuinguruetan erabiltzeko.

### Nori zuzentzen zaio Proiektuen Plaza?

#### ***Proiektuen Plaza* ekimenak jakin-mina duten eta “egin” nahi duten adin guztietako pertsonak elkartzen ditu.**

Kolektibo, elkarte, familia eta pertsonak (bakarka nahiz taldean) parte hartzeko pentsatuta dago, betiere **elkarlanean** proiektuak garatzeko interesa badute (jakin-mina dutenak, sortzaileak, artistak, eskulanetan trebeak direnak, hackerrak, makerrak/eginzaleak, diseinatzaileak, ingeniariak, zientzialariak...).

*Proiektuen Plaza* ekimenean parte hartzeko ez da beharrezkoa proiektuaren arloko aurretiko ezagutzak izatea; nahikoa da egiten ikasteko, ondo pasatu bitartean deskubritzeko eta beste batzuekin batera aritzeko jarrera irekia izatea.

#### **Proiektuen Plaza ekimenean parte hartzeko ezinbestekoa da egiten ikasteko, ondo pasatu bitartean deskubritzeko eta beste batzuekin batera aritzeko gogoia eta jarrera**



## **irekia izatea; ez da beharrezkoa proiektuaren arloko aurretiko ezagutza berezirik izatea.**

### **Nola parte hartu?**

Proiektu batean parte hartzeko bi bide daude:

1. Proiektu bat aurkeztuta.  
Horretarako, bete izena emateko formularioa: [Proiektuen Plaza](#) deialdia.
2. Kolaboratzaile edo parte-hartzaile gisa.  
Proiekturen batean laguntzeko edo parte hartzeko interesa izan ez gero, zure denbora, lana eta ezagutzak eskaini ditzakezu. Horretarako, bete hurrengo formularioa.

### **Nola garatzen da proiektu bat Proiektuen Plaza ekimenean?**

*Proiektuen Plaza* ekimenean proiektu bat gauzatzeko osagai nagusia pertsonen jakin-mina da, baita elkarrekin ikasteko eta ezagutzak partekatzeko gogoia ere. Medialab Tabakaleraren zeregina izango da horretarako gunea, materialak, harremanak eta aholkularitza eskaintzea.

Medialaben proiektu bat gauzatzeko, “Proiektuen Plaza formularioa” bete edo/ eta Medialab-eko arduradunekin hitzordua jarritz proiektua azaldu beharko da. Proiektua egokia dela iritziz gero, publiko egin eta komunikatu egingo da (sareetan, Medialabeko komunikazio euskarrietan), beste kolaboratzaileen parte-hartzea eskatzeko.

Hautatutako egitasmoak *Proiektuen Plaza* lansaiioetan garatu beharko dira. Lan saio horiek Medialaben asteazken eta ostegun arratsaldeetan izaten dira 16:00etatik 20:00etara. Medialabek aukera ematen du, dena den, bertako baliabideak eta guneak irekiera ordutegiaren barruan ere erabiltzeko, taldearekin koordinatuta.



## **Baliabideak eta zuzkidura**

Aukeratutako proiektuek Medialabeko tresnak, guneak eta baliabideak erabili ahaliko dituzte deialdia indarrean dagoen bitartean.

Proiektuek finantzaketa jasotzeko aukera izango dute material suntsikorrek erosteko, baita laguntza teknikoa ere, eta proiektua garatzeko beharrezkoak diren ezagutzak barneratzeko xedez antolatzen diren saioetan parte hartzeko aukera izango dute.

Proiektu bakoitzaren beharrak baloratzeko, aurkeztu den proiektu-memoria hartuko da kontuan, baita Medialabeko talde teknikoarekin izandako bilera ere; hala, proiektuak behar badu, zuzkidura handiagoa jaso ahal izango du.

- Tresnak: fabrikazio digitala (laser bidezko mozketak, 3D inprimatzea, CNC fresagailua), elektronika-guneak, eskuzko tresnak eta tresna elektroeramangarriak, ehungintzako tresnak.
- Guneak: Medialab espazioak, bilgune espazioak, metal eta zurgintza-tailerra.
- Oinarrizko zuzkidura ekonomikoa: 200€ proiektuko.

## **Deialdiaren esparrua:**

Hautatutako proiektuek zerikusia izan beharko dute Plaza proiektuen arloan martxan dauden lan-ildoekin eta/edo proiektuekin:

### **1. Herri-zientzia.**

Zientziaren, ingurumenaren, astronomiaren, biologiaren edo arlo soziosanitarioaren eremuko esperimentu edo dibulgazioarekin loturiko proiektuak.

Egindako proiektuen adibideak: ingurumen-sentsoreak, negutegi edo kultibo automatizatuak, suziriak, astronomian erabiltzeko tresnak (teleskopio-elementuak, izar-erakusleak), laborategian erabiltzeko tresnak (DIY mikroskopioak) eta abar.

### **2. Diseinu irekia eta fabrikazio digitala.**



Medialabeko funtsezko lan-ildo da; bertan, maker-praktikak edo fabrikazio digitaleko tresnen erabilerak eta horien komunitate irekiak sartzen dira. Ildo honek diseinu ireki, industrial, arkitektoniko edo altzarien diseinuari loturiko guztia ere barne hartzen du.

Egindako proiektuen adibideak: altzari-elementuak, plastikoa birziklatzeko makinak, 3D inprimagailuak, hari bero bidezko mozte-makina, openbike...

### **3. Datuen kultura, bistaratzea, gardentasuna, parte-hartzearen teknologiak.**

Lan-ildo honek zerikusia du informazioaren trataerarekin, datuak irekitzearekin, parte-hartze digitalarekin eta datuen kulturarekin.

Egindako proiektuen adibideak: informazioaren eta datuen bistaratze sortaileak, datuak tratatzeko tresnak, etab.

### **4. Hezkuntza eta teknologiak.**

Ildo honetan, hezkuntza xede duten eta osagaietako bat teknologia duten proiektuak gauzatzen dira. Ikasteko jolas-dinamikak, aplikazioak, jokoak, kitak edo teknologien erabilera zentzuduna sustatzen duten ekimenak har ditzakete barne ildo honetako proiektuek.

Egindako proiektuen adibideak: robotika-kitak sortzea, fabrikazio digitala, kodetzea, jokoak, hezkuntzako materialak eta material didaktikoak, liburu hedatuak...

### **5. Esperimentazioa eta sorkuntza.**

Esperimentazioa elementu komuna da Medialaben gauzatzen diren proiektu gehienetan; hori dela eta, ildo honek formatuen, proiektuen edo objektuek sorkuntza, artea eta esperimentazio puruari loturiko prozesuak hartzen ditu. Ildo honek, halaber, soinua, ikus-entzunezkoak, interakzioa, programazio sortailea, bideo-jokoak eta halako sorkuntza-diziplinei loturiko teknologiak hartzen ditu barne.

Egindako proiektuen adibideak: DIY led-pantailak, moda-elementuak eta -osagarriak, soinu-sintetizagailuak, txalaparta sintetizatuak, gainazal generatiboaren gaineko videomapping-a, domo interaktiboa, hackeatutako sukaldeko tresnak...



OHARRA: Horrez gain, Medialab Tabakalera hasitako baina une honetan etenda dauden proiektuak berreskuratu edo berrekiteko parada izango da.

## Proiektuak hautatzea eta kronograma

Proiektueneko talde teknikoak hautatuko ditu proiektuak; horretarako, lan-ildoetara egokitzen direla, esleitutako baliabideekin eta laborategiko baldintzekin bideragarriak direla eta originalak direla (edo oso antzeko proiektuak aurretik egin ez direla) aztertuko dute.

Proiektu guztiak hautatzeko, ahaleginak egingo dituzte aurreko puntuan aipatu diren lan-ildo guztiek presentzia izan dezaten.

Proiektuak jasotzea: urte osoan irekia.

Proiektuek gehienez 6 hilabete izango dituzte garatzeko.

## Kontuan hartu beharrekoak eta baldintza orokorrak

Proiektuen Plaza ekimenean baldintza nagusia landuko diren proiektuak irekiak izatea da, bai lan prozesuetan, nola amaierako emaitzetan (halakorik balego).

Proiektuen **Plaza ekimenak** beste pertsona batzuekin ikastea eta ezagutzak partekatzea sustatzen du; ondorioz, balioa emango zaio prozesu-**partehartzaileari**, eta ez hainbeste amaierako emaitzari. Azken buruan, honen guztiaren helburua esperimentatzea da, eta akatsak ahalbidetzea, ikasteko aukera ematen baitute.

- Prozesuak partekatua izan behar du: proiektuak ez dira banakoentzat izango, baizik eta taldekako lana sustatuko dute. Hori ahalbidetzeko, proiektua **abiatzeko** publikoki aurkeztuko da, askotariko ezagutzak dituzten pertsonak bat egiteko aukera izan dezaten. **Amaieran ere egindako ibilbidearen aurkezpena egin ahal izango da.**
- Proiektua dokumentatu behar da eta proiektuaren emaitzak edo hura garatu bitartean sortutako ezagutzak irekia izan behar du. Dokumentazio-lan hori egiteko, Medialabek xede horrekin sortutako eta banatutako fitxa **eta prozedurak** erabiliko dira. Prozesua

**TABAKALERA**



irekitzeko, tailerrak edo aurkezpenak egin daitezke, emaitza partekatu eta ikusgai jartzeko; horrez gain, prozesua webgune batean edo tutorial batean azal daiteke, baita sortutako fitxategi digitalak partekatu ere, lizentzia irekien bidez.

**KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA**  
—

**CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA**  
—

**INTERNATIONAL  
CENTRE FOR  
CONTEMPORARY  
CULTURE**  
—

**tabakalera.eus**  
—